



Giza eskubideen berme orokorrak

**Arartekoaren Europako eta Nazioarteko
Gaien Bulegoa
2021eko urria**



**www.ararteko.eus
international@ararteko.eus**

GIZA ESKUBIDEEN BERME OROKORRAK

- **Nazio Batuen Batzordeak**: giza eskubideei buruzko Nazio Batuen itun bakoitzak, bai bi itun orokorrek, bai pertsona-talde jakin batzuentzako berariazko hitzarmenek, adituen batzordeak sortzea aurreikusten dute, itunak betetzen direla ikuskatzeko. Zenbaitetan, batzorde horiek eta haien eginkizunak protokolo gehigarriek arautzen dituzte. Batzorde horiek bi eginkizun nagusi dituzte:
- a. Lehenengoa, itun bakoitzeko eskubideak betetzeari buruz herrialdeek aurkeztu behar dituzten aldiari behingo txostenak berrikustea. Estatuak aurkeztutako informazioa aztertzen dute batzordeak, beste iturri batzuetako informazioarekin alderatzen dute eta, elkarriketa baten ondoren, txosten bat egiten dute bete diren eta bete ez diren alderdiak adierazteko.
 - b. Gainera, batzorde horiek jaso ditzakete dagokion itunaren eskubideren bat urratu izana alegatzen duten pertsonen banakako demandak. Europako Auzitegiaren kasuan bezala, beharrezkoa da herrialdearen barneko errekurtsio judizialak agortzea, dena delako itunak aitortutako eskubide baten urraketa alegatzea eta urraketa biktima izatea. Batzordeak demandatzailearen argudioak aztertzen ditu, bai eta demandatutako estatuarenak ere. Demanda onargarria bada, batzordeak irizpen bat ematen du, eta, haren bidez, eskubideren bat urratu den ala ez erabakitzen da. Urraketa egon dela adierazten badu, zer neurri hartu behar diren ere gomendatzen du, hura konpondu eta etorkizunean urraketa gehiagorik egon ez dadin. Bigarren eskumen hori aukerakoa da estatuentzat. Espainiak onartu du berretsi dituen Nazio Batuen itun guztietarako.

[Nazio Batuen Batzordeetako jurisprudentzia eskuratzeko, haren [datu-basea](#) erabili dezakezu, edo, bestela, haietako bakoitzaren webguneetan sartu zaitezke, tituluaren dagoen esteka baliatuz.]